


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak % 3,0 igo ziren 2016ko bigarren hiruhilekoan

Gasolindegia barnean hartu gabe, txikizkako merkataritza % 3,5 hazi zen prezio konstanteetan

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektoreak % 3,0 igo zituen salmentak, prezio konstanteetan, 2016ko bigarren hiruhilekoan, betiere aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, EUSTATEk emandako datuen arabera. Sektoreko salmenta, hornitegiak kontuan izan gabe, % 3,5 igo zen urte arteko tasari erreparatuta.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, berriz, % 0,7ko igoera erreala izan da, behin urte-sasoiko eraginak ezabatu ondoren.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Sektoreen arabera, elikagaien salmenta % 4,2 gehitu zen 2016ko bigarren seiuhilekoan, gainerako produktuen txikizkako merkataritza % 2,9 igo zen eta automoziorako erregaiei salmenta % 0,1 igo zen, betiere 2015eko aldi berarekin alderatuta eta prezioen eragina kendu ostean.

Elikagaien txikizkako merkataritzaren barruan, merkataritza espezializatua % 0,7 gehitu zen, eta elikagaiak nagusi diren merkataritza espezializatu gabea % 6,2 igo zen.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan ere aldaketa positiboak gertatu dira sektore guztietan, pertsonaren ekipamenduan espezializatutakoan izan ezik, azken horretan % 1,1 jaitsi baita. Etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritza % 7,7 hazi da, beste kontsumo-ondasunetan espezializatutakoa % 5,2 eta gainerako produktuetan nagusi den merkataritza espezializatu gabea % 0,8, guztiak prezio konstanteetan.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. II/2016

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	2,7	1,3	3,0	0,7
Araba/Álava	-1,7	-0,3	0,9	0,0
Bizkaia	3,9	0,9	2,9	0,0
Gipuzkoa	3,1	2,8	4,1	2,1
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	5,4	1,1	4,2	0,7
Elikagaietan espezializatuta	2,9	0,8	0,7	0,1
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	6,8	0,1	6,2	0,0
Beste produktuak	4,3	1,5	2,9	0,9
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	4,1	1,7	-1,1	-0,9
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	7,2	1,1	7,7	1,3
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	4,6	2,8	5,2	2,0
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	0,2	2,4	0,8	1,7
Automoziorako erregaia	-12,9	-1,1	0,1	0,6
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	4,8	1,3	3,5	0,8
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	0,9	0,2		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Hiru lurralde historikoetan urte arteko salmentak gora egin du termino errealetan: Gipuzkoa % 4,1 hazi da, Bizkaia % 2,9 eta Araba % 0,9. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban eta Bizkaian ez da aldaketarik izan eta Gipuzkoan indizeak % 2,1 egin du gora.

Euskal Autonomia Erkidegoan txikizkako merkataritza-sektorean lan egiten duen langile kopuruak gora egin du 2016ko bigarren hiruhilekoan. 2016ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta % 0,2 igo da eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta % 0,9.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen (BMIt) gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen (BMIt) gaineko datu-bankua